EL DIARIO VASCO 2006-10-08

# ALEGIA / Ipuin kontaketa Behibi's taldearen eskutik

ALEGIA. DV. Biharko, ipuin kontaketa saioa antolatu da Alegiako Udal Liburutegian. Arratsaldeko 6tan hasiko da eta 4 eta 8 urte bitarteko haurrei zuzenduta egongo da. Behibi ' s taldeak aukeztuko du Marilo Betilo izeneko lana. Talde hau txotxongiloekin aritu ohi da askotan eta Alegian ere halaxe izango da. Bestalde, Alegiako Udal Liburtegiak helduentzat hitzaldi batzuk ere antolatu ditu. Yolanda Arrieta idazlea izango da hizlaria eta Irakurketaz goza-tzen izango da hitzaldien gaia. Bereziki 0 eta 6 urte bitarteko haurren gurasoei zuzenduta daude hitzaldiak. Hiru saio izango dira. Lehenengoa urriaren 20an izango da bigarrena hilaren 27an eta hirugarrena azaroaren 3an. Hirurak Alegiako Udal Liburutegian izango dira arratsaldeko 14.30etatik 16.00tara.